



BARAÑAINGO UDALEKO TELEZENTROAREN **ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDU IRIZPIDEAK**

Goian aipatutako irizpideak lotesleak dira eta Barañaingo Udaleko Telezentroaren funtzionamenduaren inguruko kontu orokorrak arautzen ditu (zerbitzua erabiltzeko lehentasuna zeinek duen, hainbat muga edukiari dagokionez, ekipoak nola zaindu behar diren,...). Arau horiek honakoak dira:

1. **16 urte baino gazteagoak** ezin dira eskola orduetan Telezentroan egon, gurasoen eta tutoreen laguntzaz ez bada.
2. Erabiltzaileek erabili ahal izango dituzte Telezentroko zerbitzu fisikoak:

Sarrera librea:

Goizez (11:45-14:00) eta arratsaldez (17:00-19:00), ostiral arratsaldetan izan ezik; itxita baitago.

Prestakuntza tailerrak:

Goizez (9:15etik 11:15era) / Arratsaldez (19:00etik 21:00era)

Udako ordutegia goizez da (epealdia eta orduak jakinaraziko dira).

3. Sarrera librea den orduetan Bañaingo Udaleko Telezentroak **laguntza** eskaintzen du: galdera zehatzei erantzuten die eta ekipoak eta zerbitzuak erabiltzeko orduan suerta litezkeen zalantzak argitzen ditu.
4. **Ekipoa erabiltzeko txanda** eskatu nahi duen orok, alde zuzenetik Telezentroko arduradunari abisatzea gomendatzen diogu eta datuak ematea: izen-abizenak, NAN, txanda hartu nahi duen eguna nahiz ordua eta sinadura.
5. Lan aretoko **ekipoen erabilerari dagokienez**, erabiltzaileari saio bakoitzean ordenagailu bat utziko zaio. Ekipoa aldatu, beste bat erabili edo periferikoren bat behar izanez gero, arduradunari jakinarazi beharko zaio.
6. Eskaera guztientzako tartea egon dadin, erabiltzaile bakoitzak -egun bakoitzeko-, gehienez, ekipoa **ordubetez** erabili ahal izango du **jarraian**.



7. Nor sartzen den kontrolatzeko, ordenagailuak izena eta kodea eskatzen dizkio erabiltzaileari. Erabiltzaileak ekipoaren eta programen gaineko **ardura** hartzen du, izena ematen duen unetik saioa amaitzen den arte. Erabiltzaileak ez du inoiz ordenagailuaren konfigurazioa aldatuko.
8. **Telezentroa ondo zaintzeko**, altzarien ordena mantendu eta paperontziak erabili behar dira. Ordenagailu aretoan ezin daiteke mugikorra erabili, erre, ezta edaririk edo jatekorik sartu ere.
9. **Telezentroak garbi egon behar du**. Horretarako, paperontziak eta bestelako baliabideak egonen dira.
10. Eduki pornografikoa, arrazista, xenofoboa, sexista, indarkeriazkoa edo terrorista duten **web orrietara** sartzea galarazita dago.
11. Telezentroko ekipoetan ezin daiteke **programarik edo aplikaziorik instalatu** arduradunaren baimenik gabe.
12. Zentzuzko eran erabil ditzagun gauzak. Telezentroko arduradunak disken (CD, DVD...), eskanerren eta inprimagailuen erabilera ikuskatuko du.
13. **Ekipoa behar bezala erabiltzen ez** duena eta/edo portaera desegokia izaten duena Telezentrotik kanporatua izango da unean bertan eta betiko.
14. Erabiltzaileak bere ardurapean dagoen ordenagailua axolagabekeriaz edo behar ez duen eran erabiltzeagatik ekipoari **kalteak sortu edo ekipoa hondatzen** badu, konponketen kargu hartu beharko du.
15. Honako erabilerek izango dute **lehentasuna**, beti ere aldeztatik aurretik **eskaera fitxa** aurkezten bada:
 - ◆ Barañaingo Udalaren beharrak (Trebakuntza ikastaroak, hitzaldiak...).
 - ◆ Telezentroko gela alokatzea.
 - ◆ Lana bilatzeko formakuntza / Lanbide orientazioa